

# BERRIKETAN

## Migel Anjel Alvarez'ek esan digu:

Zaragoza'tik etorri berria den kiroltzale-itxurako mutil atsegin eta egoki au eztuzute kiroltzalea. Kiroltzaleek, izan ere, asko irabazten duten orietakoak baldinbadira batez ere, badute nork aipa, gu ere asi gabe besteen leian. Ez, pintatzailea da, leen Martiarena'ren ikasle izana eta orain, arrotz batek diona esateko, gipuzkoar maisu gaztea.

—Jaio ziñan, beraz?

—Orain 28 urte, Tolosa'n, Rondilla kale jatorrean. Bi urte edo nituelarik ekarri ninduten Donostia'ra.

—Noiz ezkeroztikoa duzu pinturarako joera?

—Tiki-ttikitandikoa. Eskolan nembillela oartu nintzan batipat, paper, liburu, edozein utsarte zuri arrastoz betetzen bainituen.

—Leenbiziko maisua nor?

—Leena eta azkena, Martiarena jauna. Sei urte egin nituen berarekin. Gero, nonbait, nere buruz aritzeko gauza nintzala iruditu zitzaion.

—Maiz joaten aal zera Paris-a?

—Aal bezain sarri. Eztut, Martiarena jaunaren ondoren, Paris baiño maisu oberik izan. Oso zait atsegin ango giroa, ango.. dena.

—Ba aal da Paris leen adiña, arte-gaietan?

—Bai; leen adiña edo leen baiño geixeago. Pintura berriari buruz batez ere. Badituzu beti goi-mallako artisten erakusketak oraindik orain izandako Braque eta Picasso'renak bezala.

—Girorik bai?

—Aukera-aukerakoa. Joan berrian, arrituxe nengoen ikusten nuenarekin. Pintura txar saldu-errax orrelakoa ageri baitzen



diotenez ain iztun ederra zelarik ere, baiñan Euskal-erriko semea naizenez eztauzkat, ezin euki ere, gure gauzak aazturik.

Migel Anjel Alvarez doi, zeatz eta apala da izketan. Itzak. izan ere, zertarako? Beste mintzaera bat dauka begiz joa gazte-gaztetandik, berak esan digunez. Orretan mintzatu nai du, izkera orren bidez azaldu nai digu bere barrena.

**ADISKIDE BERRI**